



DIE COLABORATION PROTOKOL ¹

Balizko parte-hartzaileen gida-liburu txikia

SARRERA

Aldiritar agurgarri hori, lehenik eta behin eskerrak eman nahiko genizkizuke Aldiri. Arkitektura eta Abar aldizkariarekin elkarlana egiteagatik. Badakigu esfortzu handia dela horrelako lana egitea. Artikulua idazteko orduan, erraztasunak eman nahian eta gure arteko harremana ahalik eta egokiena izan dadin, artikulua formak nolabaiteko egitura bat izatea eskatuko genizuke.

Artikuluen formatu bateratua lanen kalitate formala bermatzeko baliabidea da, baita maketazio eta argitalpen lanak errazteko modua ere. Erredakzio kontseilutik gida hau zehazki erabiltzeko eskatuko genizuke.

Ez beldurtu, dudarik badaukazu, galdetu Zenbakiaren arduradunari.

Testuaren formatua Open Office Writer edo Microsoft word bezalako testu-prozesatzaileek duten "estilo" ezberdinen bitartez jartzea eskatuko dizugu, maketazioa azkartze aldera.

Dokumentu honekin batera, eredu bezala hartu dezakezun artikulua bat atxikituko dizugu eta, nahi izanez gero, oinarritzat hartu dezakezu eta horren gainean idatzi zure testua².

Testu honetan irudirik ez sartu. Irudiak nola izan behar duen bukaera daukazu.

¹ "Protokoll über die Zusammenarbeit" google translate dixit

² Microsoft Word 2007n Aldiriren estiloak agertzeko jarraitu beharreko pausuak atxikitako beste dokumentu batean topatu ditzazkezu.

1.1 Testuaren luzera

Testuaren luzera edo tamaina neurtzea eskatuko genizuke.

8.000-10.000 karakteredun artikulua hobesten ditugu, aldizkariaren zientifikotasuna bermatze aldera. **Gehiago/gutxiago behar/nahi izatekotan, erredakzio-kontseiluarekin kontsultatu, arren.**

Karaktereen neurketa hutsuneak barne burutuko da. Microsoft Word edota OpenOffice Writer moduko testu prozesadoreek zenbaketa egiteko tresnak izaten dituzte.

1.2 Azpimarraketa

Azpimarraturiko testuak ez du artikulua %5 baino gehiago hartuko. Hiruzpalau esaldi baino gehiago ez dira segidan azpimarratuko, efektu optikoak indarra ez galtze aldera.

Erabaki estetiko bezala, irakurlean arreta pizteko zenbait pasarte azpimarratuko dira eta, nahi izatekotan, zuk azpimarratzeko aukera duzu. Azpimarratzeko, zure testu-prozesadorean "ALDIRI_Azpimarraketa" karaktere-estiloa erabili.

1.3 Oin-oharrak

Testuan zehar oin-oharrak egin daitezke, testuaren irakurketa lagunduko duen informazio osagarriak diren heinean. **Oin-ohar gehiegi erabiltzea, ordea, ez da gomendagarria.** Oharra zenbaki batekin adieraziko da, horrela:

Lorem ipsum dolor sit amet, consetetur sadipscing elitr, sed diam nonumy eirmod tempor invidunt ut labore et dolore magna aliquyam erat, sed diam voluptua ⁽¹⁾. At vero eos et accusam et justo duo dolores et ea rebum. Stet clita kasd gubergren, no sea takimata sanctus est Lorem ipsum dolor sit amet.

(1) Azalpen laburra.

Oin oharretan ez da bibliografiarik sartuko, hauek 1.4 eta 1.5 puntuetan ageri den bezala txertatuko dira.

1.4 Zitak

Egiten diren aipamen edo zitak modu honetan adieraziko dira testuan zehar.

Lorem ipsum dolor sit amet, consetetur sadipscing elitr, sed diam nonumy eirmod tempor invidunt ut labore et dolore magna aliquyam erat, sed diam voluptua. At vero eos et accusam et justo duo dolores et ea rebum
(Roger, 2005:32).

Hau da, (ABIZENA, ARGITARATZE URTEA:ORRIALDEA).

Aipamen bibliografiko guztiak testuaren amaieran zerrendatuko dira “Bibliografia” zerrendan. Ordena alfabetikoa izango da, egilearen abizenaren arabera.

Autore batek urte berean bi lan argitaratuak balitu, urtea hizki txiki batekin lagunduko da, zerrendan bereiztu ahal izateko. Hau da:

Lorem ipsum dolor sit amet (Smith, 2005a:18), consetetur sadipscing elitr, sed diam nonumy eirmod tempor invidunt ut labore et dolore magna aliquyam erat, sed diam voluptua. At vero eos et accusam et justo duo dolores et ea rebum (Smith, 2005b:196).

Eta Bibliografia zerrendan horrela azalduko da:

- Smith, J. (2005a) : Iturriaren izenburua kurtsibaz, Argitaletxea, Edizio-tokia.
- Smith, J. (2005b) : Iturriaren izenburua kurtsibaz, Argitaletxea, Edizio-tokia.

1.5 Bibliografia zerrenda:

Erabiltzen dituzun iturrietako datuen zuzentasuna eta benetakotasuna zure erantzukizuna da soilik, beraz zorrotasunez aipatzea eskatzen dizugu.

Bibliografia edo Erreferentzien zerrenda jarraian bezala osatuko da. Kasuan kasuko azalpena egiten dizugu.

Bibliografian ez da azalduko testuan zehar zitatu edo aipatu ez den iturririk.

Aukera asko daudenez gero, bat edo batzuk aukeratu :

1.5.1 Liburua bada:

Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (argitalpen urtea): *Liburuaren izena*, Argitaletxea, Edizio-tokia.

Roger, A. (2007): *Breve Tratado del Paisaje*, Biblioteca Nueva, Madril.

Liburu edo artikuluar buruzko oharrik eskaini behar denean, taket artean emango da [...], adibidez faksimilea dela argitzeko, berrargitalpen bat dagoela esateko, argitaratzear dela zehazteko, itzulpena denean jatorrizkoaren izena emateko etab.

- 1.5.2 Aldizkari zientifikoko artikulua bada:

Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea): “Artikuluaren izenburua”, *Aldizkariaren izena*, **zenbakia**, orrialdea-orrialdea.

Del Tredici, P. (2010): “Spontaneous Urban Vegetation: Reflections of Change in a Globalized World”, *Nature and Culture*, **5(3)**, 299-315.

1.5.3 Liburu editatu bateko atala edo kapitulua baldin bada:

Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (urtea): Atalaren izenburua. In: Liburu-editorearen abizena, Liburu-editorearen izenaren lehen letra. ed. *Liburuaren izena*, Argitaletxea, Edizio-tokia, orrialdea-orrialdea.

Cooke, D.J. eta Philip, L. (2001): To treat or not to treat? An empirical perspective. In: Hollin, C.R. ed. *Handbook of offender assessment and treatment*. Chichester: Wiley, 3-15.

1.5.4 Bestelako iturriak:

-Dokumentua soilik modu elektronikoa eskura daitekeenean, honela aurkeztuko da:

Egilearen deitura, Egilearen izenaren lehen letra. (argitalpen-urtea): *Dokumentuaren izena*, (Kontsulta: urtea-hilabetea-eguna).

Miyagawa, S. (2011): *Agreements that occur mainly in the main clause*,
<<http://web.mit.edu/miyagawa/www/pdfs/Miyagawa%20Main%20Clause%20Agreement%20V7.pdf>>
(Kontsulta: 2014-05-01).

UZTARO: <http://www.uztaro.com/egileohar.html>

Ahal den heinean, UZTARO aldizkariaren estilora ekarriko dira erreferentziak aipatzeko modua.

-Beste iturri mota batzuk aipatzeko moduak, hainbat metodoen artean, hemen daude eskuragarri:

Harvard Guide to Using Sources:

<http://usingsources.fas.harvard.edu/icb/icb.do?keyword=k70847&tabgroupid=icb.tabgroup112025>

1.6 Irudiak:

Irudiak artxibo bereizietan helarazi behar dira era honetan izendatuta:

XX. ZBKIA._abizena_ irudi zbkia.

1.6.1 Oina:

Argazki bakoitzaren argazki-oina zenbakitua izango da, zenbaki bera izango duen argazkiarekin errazago lotzeko. Argazki-oinaren testua zehaztu behar da.

Argazkia eta bere argazki-oina, testu orokorrean dagokion errenkadan joango da.

1.6.2 Irudiaren tamaina eta kalitatea:

- TIFF moduan jasoko ditugu eta 300 dpi-ko tamaina izan behar dute. Irudi bektoriala bada, PDF, AI, SVG eta PDF formatuak hobesten dira. DWG formatua bidaltzekotan CTB artxiboa ere atxiki beharko da.
- Irudiaren neurria: 10 x 10 cm-tik gorakoa. Tamaina txikiagoko irudiak ez dira argitaratuko.
- Irudiari azpioina jarriko zaio. Esaterako, UEUko Uztaro aldizkariaren arabeko irudi-oinak: 2. irudia. Bilbao aldizkaria, 214, 2007ko maiatza, 10. or.

Guk irudiari dagokion azpioina zein den jakiteko, horrela joango da:

x. Irudia: XX. ZBKIA._abizena_ x irudi zbkia.

1.6.3 Iturria:

Zein lizentziapean dagoen zehaztu beharko da.

Ahal den heinean, lizentzia askeko irudiak hobestuko dira, edo egileak berak egindakoak.

1.6.4 Egilea:

Egilearen izena eta, Copyrightdun lizentzia bat izatekotan, egilearekin harremanetan jartzeko helbide elektronikoa.